

Fondoaren inbertsio-politikaren printzipioen aitortpena

Laboral Kutxa 2045 Pentsio Plana

1.> Pentsio-planaren identifikazio-datuak

>> Pentsio Planaren datuak

a. Izena	Laboral Kutxa 2045 Pentsio Plana
b. Sistema	Sistema indibidualeko pentsio-plana
c. Identifikazio-zenbakia ¹	N5236

>> Pentsio Fondoaren datuak

a. Izena	Caja Laboral Rendimiento Fijo IV, Pentsio Fondoa
b. Sistema	Pentsio-fondo pertsonala
c. Identifikazio-zenbakia ¹	F1860

>> Pentsio-fondoaren erakunde gordailuzainaren datuak

a. Izena	Caja Laboral Popular Coop. de Crédito
b. Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarieta Pasealekua, zk.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
c. Identifikazio-zenbakia ¹	D0194

>> Pentsio Fondoaren erakunde gestorearen eta Planaren erakunde gestorearen datuak:

a. Izena	Caja Laboral Pensiones S.A., G.F.P.
b. Helbide soziala	Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g. 20500 - Arrasate (Gipuzkoa)
c. Identifikazio-zenbakia ¹	G0217

2.> Inbertsio-politikaren printzipioen aitortpena

- >> **Inbertsio-irizpidea** Fondoaren aktiboa partaideen eta onuradunen mesedetan inbertituko da, batez ere araututako merkatuetan, betiere segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, dispersioa, moneta-kongruentzia eta helburuetara moldatutako epeak aintzat hartuta.
- >> **Balorazio-irizpidea** Fondoko aktiboak merkatuko prezioaren edo burutzapen-balioaren arabera baloratuko dira, indarreko legediak finkatzen dituen gidalerroei jarraiki.
- >> **Banaketa estrategikoa** Ondarearen % 80 gehienez ELGAKo errenta aldakorrean inbertitzen du, eta errenta aldakorreko inbertsioa txikituz joango da 2045era arte.
Gainerako zorroa errenta finkoan eta/edo pribatuan inbertituko du, betiere inbertsio-mailako kreditu-kalitatea badu edo, txikiagoa bada, Espainiako Erresumaren unean uneko ratinga. Esposizio osoaren % 20k gehienez kalitate txikia izan ahalko du (BBB- baino txikiagoa).
Inbertsio-ehunekoa aldatzeko, aktibo deribatuak erabili ahal izango ditu merkatu antolatuetan. Finantza-tresna deribatuen bidezko merkatu-arriskurako esposizioa ondare garbiaren zenbatekokoa izango da, asko jota.
- >> **Arrisku-profila** Pentsio-plan hau inbertsio-profil dinamikoetarako eta/edo 2045 inguruan erretiroa hartuko duten partaideentzat.
- >> **Arriskuak neurtzea** Azaldutako inbertsioek arrisku hauek izan ditzakete, besteak beste: merkatu-arriskua (errenta aldakorra), interes-tasaren arriskua, kanbio-tasaren arriskua, kreditu-arriskua, likidezia-arriskua eta finantza-tresna deribatuak erabiltzearen arriskua. Arriskuok neurtzeko parametro hauek erabiliko dira:
Merkatu-arriskua: funtsaren hegakortasun urtekotua eta errenta aldakorrean inbertitutako ehunekoa.
Kreditu-arriskua: zorroko tituluen ratinga.
Likidezia-arriskua: zorroan dagoen likideziaren ehunekoa.
Interes-tasaren arriskua: planaren gehieneko eta gutxieneko iraupen-tartea. 0 eta 5 urte bitartekoa izango da.
Kanbio-tasaren arriskua: euroaz bestelako dibisekiko esposizioa.
Deribatuekiko esposizioa: ondare garbiaren gaineko esposizioa.
- >> **Etekin-helburua** Etekin-helburua da bazkideei errentagarritasun- eta arrisku-profil egokia ematea, funtsaren muga-egunean, 2045eko abenduaren 31n, helburuak lortzeko.
- >> **Likidezia-koefizientea** Fondoak prestazioei aurre egiteko moduko likidezia-koefizientea izango du. Koefiziente hori ageriko gordailuetan eta gehienez hiru hileko mugaeguna duten diru-merkatuko aktiboetan egongo da.
- >> **Gainbegiratzea eta jarraipena egitea** Erakunde gestorearen middle office areak harturiko arrisku-maila kalkulatzeko eta inbertsio-politikan finkaturikoarekin bat datorren egiaztatzeko prozedurak ditu.
- >> **Indarraldia** 2045ko abenduaren 31ra arte.